– Las acciones de transferencia de conocimiento mediante contratos o convenios de investigación o de transferencia de conocimiento con administraciones públicas o empresas, canalizados a través de las oficinas de gestión de la investigación o equivalentes de las universidades, institutos, centros de investigación, etc. No computarán en este punto los informes, las consultorías, los proyectos básicos en arquitectura o ingeniería, etc., que no aporten una mejora del conocimiento significativa a su ámbito. Forma parte de este criterio el grado de explotación de las patentes.

– La obtención y grado de financiación, vía convocatorias competitivas, estatal, europea o de otra procedencia para proyectos de investigación y, especialmente, el liderazgo de los proyectos.

c) Bloque de criterios sobre objetivos y plan de trabajo (15 sobre 100).

– Objetivos del grupo a tres y seis años.

– Coherencia de los objetivos con el plan de trabajo y los presupuestos económicos presentados.

d) Bloque de criterios complementarios (15 sobre 100).

– La composición, estructura, interdisciplinariedad y coherencia del grupo y, en especial, el equilibrio de género en el seno del grupo de investigación.

– Emaitzen zientzia-zabalkundea. Taldearen ikerketa-jarduera jakinarazi, zabaldu edo irakasteko egitaraua edo ekintzak.

4.– Jarritako helburuak lortzeko egoki deritzon aurrekontua proposatuko du adituen panelak talde bakoitzerako. Aurrekontu horrek ezin gaindituko du taldeak, azken sei urteetan, kanpoko ebaluazioarekin egindako ikerketa-proiektuen bidez lortu duen finantziazioaren % 50. Aurrekontu honen kopurua zehaztuko da kasu bakoitzean aurkeztu den ikerketa-planaren eta ezarritako helburuen arabera, bai eta eskabidea aurkezten den egunean kontsolidatu eta eskatu den kanpo finantziazioaren arabera ere. Aurrekontuan malgutasuna eta beregaintasuna onartuko dira, baina beti deialdi honetan onetsitako aurrekontu-azalpenen barne.

5.– Ebaluazio-prozesuak hala eskatzen badu, eskatu ahal izango da Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bien arteko itzulpena, eta ikerketa-proiektua itzultzaile espezializatuek egin beharko dute.

12. artikulua.– Esleipen-prozedura.

1.– Ebaluazioa Hautaketa Batzordeari helaraziko zaio. Batzordea osatuko dute Zientzia Politikarako zuzendariak eta Unibertsitateetako zuzendariak, eta Zientzia Politikako Zuzendaritzako teknikari baten laguntza izango du.

2.– Hautaketa Batzordeak ebazpen-proposamena idatziko du. Ebazpen horretan zehaztuko du zein talde diren A motakoak eta zein B motakoak, eta zein diru-laguntza dagokion talde bakoitzari, urteka zehaztuta.

3.– A motako taldearen kategoriakoak izango dira ebaluazio zientifikoaren fasean 75 eta 100 puntu bitartean lortu dituzten ikertaldeak. B motako taldearen kategoriakoak izango dira zientzia-ebaluazioaren fasean 50 eta 74 puntu bitartean lortu dituzten ikertaldeak.

4.– A motako taldearen kategorian sartzen diren ikertaldeek sei urteko aldirako lortu ahal izango dute diru-laguntza, eta B taldekoek hiru urterako.

5.– Talde bakoitzari dagokion diru-laguntza lehiaketa-prozeduraz zehaztuko da. Horretarako, eskabideen lehentasun-hurrenkera ezarriko da puntuen % 50 edo gehiago lortu duten eskabide guztien artean, ebaluazio-fasean lortutako puntuen hurrenkerarekin bat etorrita.

6.– Agindu honen 2. artikuluan jasotako aurrekontu-kreditua nahikoa ez bada hornitzeko taldeen aurrekontuak Hautaketa Batzordeak proposatu bezala, lortutako puntuen proportzioan banatuko dira funtsak.

– La divulgación científica de los resultados. Programa o acciones de comunicación, difusión o didáctica de la actividad de investigación del grupo.

4.– El panel de expertos propondrá, para cada uno de los grupos, el presupuesto y el periodo de ejecución que considere adecuado para el logro de los objetivos fijados. Dicho presupuesto no podrá superar el 50% de la financiación obtenida por el grupo mediante proyectos de investigación con evaluación externa en los últimos seis años. La cuantía de este presupuesto se determinará en cada caso en función del plan de investigación presentado, los objetivos planteados y la financiación externa consolidada y solicitada a la fecha de presentación de la solicitud. Se contemplará una flexibilidad y autonomía en el presupuesto, pero siempre dentro de los conceptos presupuestarios permitidos en esta convocatoria.

5.– Si el proceso de evaluación lo exigiera, podrá requerirse la traducción por traductores especializados del proyecto de investigación entre las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma.

Artículo 12.– Procedimiento de adjudicación.

1.– La evaluación se hará llegar a la Comisión de Selección, que estará constituida por la Directora de Política Científica y la Directora de Universidades y contará con la asistencia de un técnico de la Dirección de Política Científica.

2.– La Comisión de Selección elaborará la propuesta de resolución en la que se determinará qué grupos forman parte del tipo A y del B y la subvención que corresponde a cada uno de ellos, detallada por anualidades.

3.– Pertenecerán a la categoría de grupo tipo A aquellos grupos de investigación que en la fase de evaluación científica hayan obtenido una puntuación entre 75 y 100 puntos. Pertenecerán a la categoría de grupo tipo B aquellos grupos de investigación que en la fase de evaluación científica hayan obtenido una puntuación entre 50 y 74 puntos.

4.– Los grupos de investigación integrados en la categoría de grupo tipo A podrán obtener subvención para un periodo de seis años y los del grupo B para tres años.

5.– La subvención que corresponde a cada uno de los grupos se determinará por el procedimiento de concurso. A tal efecto se establecerá un orden de prelación de las solicitudes por orden de puntuación obtenida en la fase de evaluación con todas las solicitudes que hayan obtenido una puntuación igual o superior al 50% del total.

6.– Cuando el crédito presupuestario consignado en el artículo 2 de la presente Orden no sea suficiente para cubrir los presupuestos de los grupos en los términos propuestos por el comité de evaluación, se procederá a un reparto de los fondos en proporción a la puntuación obtenida.

7.– Ikertaldeei diru-laguntzak eman ondoren aurrekontu-soberakinak baleude, puntuaziorik onena lortu duten B motako taldeek sei urterako diru-laguntza lortu ahal izango lukete soberakina agortzeraino.

13. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Agindu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak dira ikertze berbera finantzatzea xede duen beste edozeinekin, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateek taldeei ematen dizkieten diru-laguntza orokorrekin izan ezik.

2.– Jaso beharreko laguntzaren kopuruak ezin gaindituko du diru-laguntza jaso dezaketen azalpenek, banan-banan hartuta, sortutako gastua guztira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako diru-laguntzak kopuru hori gainditzen badu, gastu hori ez gainditzeko behar den kopurua murriztuko da.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hautaketa Batzordeak hala proposatu ondoren, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenez esleituko dira laguntzak.

2.– Ebazpen horrek, erakunde onuradunei atxikitako talde bakoitzari dagokionez, honako hauek jasoko ditu:

a) Talde eskatzailearen identifikazioa.

b) Ebaluazioaren emaitza: Ukoa, A motako edo B motako taldetzat onartzea.

c) Emandako kopuru osoa eta azalpenen xehetasuna.

d) Laguntzaren banaketa denboran zehar.

e) Ordaintzeko modua eta epeak.

f) Laguntza justifikatzeko modua.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita sei hilabeteko epean, eta, horrela, prozeduran interesa dutenei jakinarazitzat joko da. Epe horretan ebazpena argitaratzen ez bada, eskariei uko egin zaiela ulertuko da.

4.– Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

15. artikulua.– Onuradunaren eginbeharrak.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek, nolanahi ere, eginbehar hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu. Onarpena eredu normalizatuan formalizatuko da, eta deialdiaren

7.– Si una vez cubierta la subvención a los grupos de investigación, resultaran excedentes presupuestarios, los grupos tipo B con mejor puntuación podrán obtener subvención a seis años hasta el agotamiento del excedente.

Artículo 13.– Compatibilidad.

1.– Las ayudas que se concedan al amparo de esta Orden son compatibles con cualquier otra que tenga por objeto financiar la misma acción de investigación, a excepción de las subvenciones generales a grupos que concedan las universidades con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La cuantía de la ayuda a percibir no podrá exceder del total del gasto generado por cada uno de los conceptos subvencionables individualmente considerado. Si excediera, la subvención otorgada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se reducirá en la cuantía necesaria para no superar dicho gasto.

Artículo 14.– Resolución.

1.– A propuesta de la Comisión de Selección, la adjudicación de las ayudas se realizará mediante resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

2.– Dicha resolución contendrá para cada uno de los grupos adscritos a los organismos beneficiarios:

a) Identificación del grupo solicitante.

b) Resultado de la evaluación: denegación o reconocimiento como grupo tipo A o tipo B.

c) Cantidad total asignada y detalle por conceptos.

d) Desglose temporal de la ayuda.

e) Forma y plazos de pago.

f) Forma de justificación de la ayuda.

3.– La resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria, dándose de esta forma por notificados los interesados en el procedimiento. Si en dicho plazo no se publicara la resolución, se entenderán desestimadas las solicitudes.

4.– Contra la resolución podrán los interesados interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 15.– Obligaciones del beneficiario.

1.– Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. La aceptación se formalizará mediante un modelo normalizado

ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean Zientzia Politikako Zuzendaritzara bidaliko da, ondorengo agiri hauekin batera:

– Taldearen ekoizpenean zenbatu den argitalpen bakoitzaren lehen orrialdearen fotokopia, deialdiaren 4.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

– Taldearen ikerketa-proiektuen onarpen-agiriaren edo kontratu edo hitzarmenen fotokopia, deialdiaren 4.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

– Amaitutako doktore-tesiak egiaztatzeko agirien fotokopia eta/edo tesien inskripzioena eta doktoregaien ikertze-nahikotasunen egiaztapenena, deialdiaren 4.9 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

– Zinpeko adierazpena, adierazten duena taldeko inork ere ez duela jasotzen diru-laguntza orokorrik egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duen unibertsitateren batek ikertaldeentzako ematen duenik.

Talde bakoitzaren onarpen-inprimakia ikertzaile nagusiak eta erakunde onuraduneko Ikerketa errektoreordeak edo horren baliokideak izenpetuta aurkeztu beharko da.

Onarpen-agiriak ofizio bati erantsita bidaliko dira eta jaso beharko ditu taldeen zerrenda, zenbakia ipinita, eta taldearen ikertzaile nagusiaren izena. Ofizio hori aurkeztu beharko da erakunde onuradunaren legezko ordezkariak izenpetuta eta data jarrita.

Onuradunek ez badute onarpen-agiria eta eskatzen den dokumentazioa epe horretan aurkezten, iritziko zaio laguntzari uko egiten diotela.

b) Diru-laguntza eman den helburu jakinerako erabiltzea.

c) Edozein aldaketa, jarduera-eten edo aldi baterako ez egotea Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinaraztea.

d) Ekonomia Kontroleko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak euren eginkizunak bete dezaten, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzez eskatzen dieten informazioa ematea.

16. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

1.– Zientzia Politikako Zuzendaritzak diruz lagundutako eskabideen jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

2.– Urtero, ikertzaile nagusiak jarduera-planaren jarraipen ekonomikoari buruzko txosten partziala aurkeztuko du. Txosten hori Zientzia Politikako

que se remitirá a la Dirección de Política Científica en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la resolución de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, junto con la siguiente documentación:

– Fotocopia de la primera página de cada publicación que se haya contabilizado en la producción del grupo, conforme a lo establecido en el apartado 4.7 de la convocatoria.

– Fotocopia del documento de concesión de los proyectos de investigación o de los contratos o convenios del grupo, conforme a lo establecido en el apartado 4.8 de la convocatoria.

– Fotocopia de los documentos acreditativos de las tesis doctorales finalizadas y/o de las inscripciones de las tesis y acreditaciones de las suficiencias investigadoras de los doctorandos, de acuerdo con lo establecido en el apartado 4.9 de la convocatoria.

– Declaración jurada de que ningún componente del grupo de investigación recibe subvenciones generales a grupos de investigación otorgadas por una universidad con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El impreso de aceptación de cada grupo deberá venir firmado por el investigador principal y por el Vicerrector de Investigación o equivalente del organismo beneficiario.

Los documentos de aceptación se enviarán acompañados de un oficio y de la relación numerada de los grupos incluidos con el nombre de los investigadores principales de cada uno de ellos. Dicho oficio deberá estar fechado y firmado por el representante legal del organismo beneficiario.

Los beneficiarios que no presenten el documento de aceptación y la documentación requerida en el plazo indicado anteriormente se entenderá que renuncian a la ayuda.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que ha sido concedida.

c) Notificar a la Dirección de Política Científica cualquier cambio, interrupción de actividades o ausencia temporal.

d) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

Artículo 16.– Seguimiento y control.

1.– La Dirección de Política Científica organizará el procedimiento para el seguimiento de las solicitudes subvencionadas.

2.– Anualmente, el investigador principal presentará un informe parcial de seguimiento económico del plan de actividades. Dicho informe

Zuzendaritzara bidaliko da hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen. Txosten hori erakunde onuradunaren kudeatzailearen edo kontabilitate-zerbitzuburuaren ziurtagiria izango du, ziurtatuko duena emandako laguntzarekin egin den gastua atalka, eta bakoitzaren zenbatekoa jarrita.

B motako ikertaldeek, hirugarren urteari dagokion urteko txostenarekin batera, aldi osoko gastuen egiaztagiria aurkeztuko dute. Sei urtera finantzatutako taldeek ere aldi osoaren ziurtagiria aurkeztuko dute, seigarren urteari dagokion jarraipen ekonomikoari buruzko txostenarekin batera.

3.– Jatorrizko fakturak erakunde onuradunean artxibatu beharko dira lehenago esan den justifikazio-epearen amaieratik gutxienez bost urtez, eta eskura egongo dira Zientzia Politikako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontroleko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten duten edozein egiaztapenerako.

4.– Txosten horien ebaluazioak baldintzatu egin dezake proposatutako laguntzekin jarraitzea, edota ekar dezake laguntzak ezeztatzeko eta jasotako kopuruak itzultzeko espedientea, planetik nabarmen desbideratuz gero.

5.– Ikertaldearen osaeran edo taldearen helburu orokorretan aldaketak gertatzen badira, ikertzaile nagusiak Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta horren aurrean aztertuko da, dagokion espedientea egin ondoren, proposatzen diren aldaketek hitz emandako diru-laguntzak aldatu edo ezeztatzea merezi duten.

6.– Finantziazioaren bosgarren sei hilabetekoa igaro ondoren, lortu diren kanpoko diru-laguntzen eta ikerketa-proiektuen bidez erdietsi diren emaitzak beren beregi emango den inprimakian idatzitako txostenean jaso beharko dira. Txostena, ikertzaile nagusiak eta Ikerketako errektoreordeak edo horren parekoak izenpetuta, Zientzia Politikako Zuzendaritzara bidaliko da 2012ko urriaren 1a baino lehen. Txosten hori erdiko txostena izango da A mota taldeetarako eta azken txostena B mota taldeetarako.

7.– Txosten horien ebaluazioa 2013ko lehen sei hilabetekoan egingo da eta A motako taldeen azken hiru urte-sarietarako onartutako diru-laguntza baldintzatuko du: % 25 ere murriztu daitezke urte-sariok.

8.– A motako ikertaldeek txosten hori berriro egingo dute denboraldi osoa hartuz, eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzara bidaliko dute 2015eko laugarren hiru hilabetekoan.

9.– Onuradunek eskatzen zaien informazio guztia eman eta Zientzia Politikako Zuzendaritzak edo,

económico se remitirá a la Dirección de Política Científica antes del 31 de marzo del año siguiente y consistirá en una certificación de la gerencia o jefatura del servicio de contabilidad del organismo beneficiario, del gasto ejecutado con la ayuda concedida por conceptos y sus respectivos importes.

Los grupos de investigación tipo B, presentarán junto con el informe económico anual correspondiente al tercer año, la certificación de gastos del periodo completo. Los grupos tipo A presentarán la certificación del periodo completo junto con el informe de seguimiento económico correspondiente al sexto año.

3.– Las facturas originales deberán archivarse en el Organismo beneficiario durante un periodo mínimo de cinco años a partir del fin del plazo de justificación señalado anteriormente y estarán disponibles para cualquier comprobación que realice la Dirección de Política Científica, la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

4.– La evaluación de estos informes podrán condicionar la continuidad de las ayudas propuestas o suponer un expediente de revocación y de reintegro de las cantidades percibidas, en el supuesto de una desviación significativa del plan.

5.– En el caso de que se produzcan cambios en la composición del grupo investigador o de los objetivos generales del grupo, el investigador principal deberá notificarlo a la Dirección de Política Científica, en cuyo caso esta Dirección podrá determinar si los cambios propuestos merecen modificación o revocación de subvenciones comprometidas, previo el oportuno expediente.

6.– Superado el quinto semestre de financiación, los resultados obtenidos mediante la realización de los diferentes proyectos de investigación y subvenciones externas que se hayan obtenido, deberán reseñarse en un informe técnico redactado en un impreso que se facilitará al efecto. El informe, firmado por el investigador principal y el vicerrector de investigación o equivalente, se enviará a la Dirección de Política Científica antes del 1 de octubre de 2012. Este informe constituirá un informe intermedio para los grupos tipo A y un informe final para los grupos tipo B.

7.– La evaluación de estos informes se realizará en el primer semestre de 2013 y condicionará la subvención aprobada para las tres últimas anualidades de los grupos tipo A, que pueden verse reducidas hasta en un 25%.

8.– Los grupos de investigación con financiación tipo A deberán remitir otro informe para el periodo de ejecución completo y lo enviarán a la Dirección de Política en el cuarto trimestre de 2015.

9.– Los beneficiarios deberán facilitar toda la información que les sea requerida y someterse a las

indarrean dagoen araudiaren arabera, eskumena duten beste organo batzuek eskatzen dituzten ikuskaritzak, egiaztapenak eta kontrol-jarduerak onartu beharko dituzte.

17. artikulua.– Ordainketa.

1.– 2010. urteari dagozkion onuradunen laguntzaren kopurua bi alditan ordainduko da: lehenengoa, kopuru osoaren % 50, Agindu honen 15. artikuluan azaltzen den onarpen-prozedura betetakoan; bigarrena, gainerako % 50, 2011n, 16.2 artikuluan jasotako jarduera-planaren jarraipen ekonomikoari buruzko txostena ebaluatu ondoren.

2.– Ondorengo urteetan ordainketa bi alditan egingo da. Lehenengoa, uneko urteari dagokion zenbatekoaren % 50, aurreko urteko bigarren ordainketarekin batera ordainduko da, eta gainerako % 50, aurreko paragrafoan aipatu bezala, Zientzia Politikako Zuzendaritzak ebaluazio-txostena egiten duenean.

18. artikulua.– Ez betetzea eta itzultzea.

1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), ezin izango da laguntzaren edo dirulaguntzaren ordainketa galdatu, eta aurretik zerbait ordaindu bazaie, bidezkoa izango da, batetik, jasotako zenbatekoak itzularaztea, eta, bestetik, laguntza edo dirulaguntza ordaindu zenetik aurrera sortuko ziren legezko korrituak galdatzea, baldin eta honakorik gertatzen bada:

a) Deialdi honetako oinarriak edo oro har dirulaguntzen ezartzen zaien araudia edo onarpen-ebazpenean erabakitako baldintzak guztiz edo zati batean ez betetzea.

b) Datu horiek ezkutatzea, aldatzea edo eskatzen den informazioa nolanahi iruzurrez manipulatzea, diru-laguntza emate aldera.

c) Garatutako ekintza proposatutako helburuekin eta jarritako epeekin bat ez etortzea, Zientzia Politikako Zuzendaritzaren baimenik gabe.

d) Zientzia Politikako Zuzendaritzak diruz lagundutako ekintzen jarraipenaren bitartez egiaztatuta geratzea egin den gastua proposatu eta esleitu denerako egokia ez dela.

2.– Era berean, diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak eraldatuz gero, eta batez ere beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako laguntzak edo diruak hauekin batera lortuz gero, eta, kasua bada, helburu bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabide erdietsiz gero, baliteke onarpen-ebazpena aldatzea, diru-laguntzaren

actuaciones de inspección, comprobación y control que pueda requerir la Dirección de Política Científica u otros órganos competentes, de acuerdo con la normativa vigente.

Artículo 17.– Pago.

1.– El pago del importe de la ayuda a los beneficiarios correspondiente al año 2010 se realizará en dos libramientos: el primero, por el 50% del total, una vez cumplido el procedimiento de aceptación descrito en el artículo 15 de la presente Orden. El segundo, por el 50% restante, en 2011, una vez haya sido evaluado el informe de seguimiento económico del plan de actividades señalado en el artículo 16.2.

2.– En los años sucesivos el abono se realizará en dos pagos. El primero, por el 50% del importe correspondiente al año en curso se abonará junto al segundo pago del año anterior y el 50% restante, tras la emisión por parte de la Dirección de Política Científica del informe de evaluación, de acuerdo a lo mencionado en el párrafo anterior.

Artículo 18.– Incumplimiento y reintegro.

1.– De acuerdo con lo establecido en los artículos 53 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, Texto Refundido, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre (BOPV de 19 de enero de 1998), no será exigible el abono de la ayuda, y en su caso procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia de los intereses legales que resultaren de aplicación desde el momento del pago de la ayuda, si los beneficiarios incurrieran en alguno de los siguientes supuestos:

a) Incumplimiento total o parcial de las bases de esta convocatoria, o de la normativa de general aplicación de subvenciones o de las condiciones acordadas en la resolución de concesión.

b) La ocultación de datos, su alteración o cualquier manipulación fraudulenta de la información solicitada, para la concesión de la ayuda.

c) El desarrollo de la acción no coincidente con los objetivos propuestos y los plazos estipulados, sin contar con la autorización de la Dirección de Política Científica.

d) Resultar acreditado a través del seguimiento que de las acciones subvencionadas efectúe la Dirección de Política Científica, la inadecuación del gasto realizado al propuesto y adjudicado.

2.– Asimismo, toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, y en su caso de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la

arauak laguntzaren onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko betekizunak betetzen badira betiere.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa) Bigarren Tituluak arautzen du diru-laguntzak itzultzeko prozedura orokorra, laguntza jasotzeko eskubidea galtzea, eta, dagokionean, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari jasotako kopuruak eta horien interesak itzuli beharra; eta ezarritakoaren arabera, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenez deklaratuko da, dagozkion prozedura-izapideak hezurmamitu ondoren; horrez gain, dagozkion gainerako ekintzak ere bidera daitezke.

4.– Aipatutako kopuruak diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

19. artikulua.– Publizitatea.

Deialdi honi esker sorten diren argitalpen eta bestelako emaitzetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza aipatu beharko da.

20. artikulua.– Datuak babestea.

1.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, inprimakian jasotako datu pertsonalak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan jasoko dira.

2.– Eskabidea sinatu duten pertsona fisikoak ez diren hirugarren pertsonen datu pertsonalak fitxategi automatizatu horretan bertan jasoko dira eta, beraz, haiek halaxe jakinarazi behar diete datuak eskaera-inprimakian adierazi aurretik.

3.– Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko eta datuak zuzentzeko zein ezerezteko eskubideak eta indarrean dagoen legeriak pertsona fisiko interesdunei aitortzen dizkien gainerakoak Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzan erabili ahal izango dira (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduko 5.3 artikuluaren ondorioetarako, agindu honetako diru-laguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, kreditu egokiak eta nahikoak egon behar dira Euskal

resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos por la norma subvencional para ser beneficiario de ésta.

3.– De acuerdo con lo establecido en el Título Segundo del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre (BOPV de 7 de febrero de 1992), en el que se regula el procedimiento general de reintegro de subvenciones, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, se declarará por resolución de la Viceconsejera de Universidades e Investigación, previa la substanciación de los trámites procedimentales oportunos, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

4.– Las cantidades referidas tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Artículo 19.– Publicidad.

En las publicaciones y otros resultados que se generen gracias a esta convocatoria, deberá citarse el apoyo del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

Artículo 20.– Protección de datos.

1.– De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de datos, los datos de carácter personal que figuran en el formulario pasarán a formar parte del fichero automatizado de datos de carácter personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.– Los datos personales de terceras personas distintas de las personas físicas que firman la solicitud pasarán a formar parte del mismo fichero automatizado, por lo que éstas deberán informar a aquellas de tal circunstancia antes de incorporar sus datos al formulario de solicitud.

3.– Los derechos de oposición, acceso, rectificación, cancelación y cualesquiera otros reconocidos por la legislación vigente a las personas físicas interesadas se podrán ejercitar ante la Viceconsejería de Universidades e Investigación, sita en la calle Donostia-San Sebastián, 1, CP 01010 Vitoria-Gasteiz.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos contemplados en el artículo 5.3 de la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la resolución de las ayudas de la presente Orden queda supeditada a

Autonomia Erkidegoaren 2010. urteko aurrekontu orokorretan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau garatzeko eta gauzatzeko behar diren hainbat xedapen egiteko ahalmena izango du Zientzia Politikarako zuzendariak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi- errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

la previa existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2010.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Directora de Política Científica a dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución de la presente Orden.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.– La presente Orden surtirá efecto a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de octubre de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.